



Donostian, 2024 ko Urriak 1

Liautard-en "The Dune" argazkiak CVCEPHOTO-ko hamargarren edizioa irabazi du

Jb Liautarden "The Dune" argazkiak irabazi du CVCEPHOTOren 10. Edizioa.

Bigarren saria Yhabril Mororen "White Fang" argazkiarentzat izan da, eta hirugarrena Jb Liautarden "Fuego" argazkiarentzat.

BBK Mendi Film Bilbao-Bizkaiaren kartelaren saria Jb Liautardek irabazi du, "Fuego" argazkarekin, hirugarren sariaz gain.

Euskal Herriko argazki onenaren EITB Media saria Yhabril Mororen "White Fang" argazkiarentzat izan da, lehiaketako bigarren sariaz gain.

CVCEPHOTOren hamargarren edizioa

Donostiako Club Vasco de Camping Elkarateak hamarkada bat bete du CVCEPHOTO nazioarteko mendi-jarduerako argazki-lehiaketa antolatuz. Lehiaketa honetan, aurreko edizioetan bezala, espezialitateko argazkilari onenak, profesionalak eta mundu osoko zaleak bildu dira.

Lehiaketara aurkeztutako mila argazkien artean, epaimahaiak 19 argazki sarituak aukeratu ditu, eta Frantzia, Espainia, Suitza, Polonia, Suedia, Italia, Austria, Bulgaria, Txina eta Kanada-ko autoreak saritu ditu, edizio honetan ordezkaturako 50 herrialde baino gehiagoren artean.

Saritutako argazkiak

Lehiaketako epaimahaiak **lehen saria eta 1400 €** eman dizkio Jb Liautard-en "The Dune" argazkiari, Peruko duna altuenean dagoen txirringulari baten aireko argazki ikusgarria.

"Haizeak, besterik gabe, forma eman zion duna erraldoi horri, patroï perfektu batekin, eskala askoz txikiago batean ikus dezakegun patroï berarekin", dio egileak.

Villanuan (Huesca) bizi den Yhabril Moro argazkilariak, CVCEPHOTOren aurreko edizioetan ere saritua, **bigarren saria eta 700 €** eskuratu ditu "White Fang" argazkiarekin, slack-liner edo funanbulista bat harrapatuz giro oso berezi batean, argazkilari bizkaitarraren bilakaera erakusten diguna.

Jb Liautardek **hirugarren saria eta 300 €**-ko saria lortu ditu Guatemalako Suaren Sumendian egindako "Fuego" argazkiagatik, erupzio beteko ingurune batean txirrindulari baten eszenarekin.

Gainerako 16 argazkiek Ohorezko Aipamenak jaso dituzte, eta horietan, eskiaz edo eskaladaz gain, mendian egiten diren beste jarduera batzuk irudikatzen dira, hala nola mendi-ibiliak, boulderra edo parapentea.

Aurtengo zein aurreko edizioetan saritutako argazki guztiak dituen galeria online ikus daiteke www.cvcephoto.com

BBK Mendifilm Bilbao-Bizkaia Poster Saria

Urtero bezala, CVCEPHOTOk Mendiko Zinemarako Nazioarteko Aliantzaren (IAMF) egutegian sartutako BBK Mendi Film Bilbao-Bizkaia jaialdian kartel nagusi gisa erabiliko den argazkia saritu du bere parte-hartzaileen artean.

Aurten, **BBK Mendifilm Bilbao-Bizkaia Poster Saria**-ren **eta 700 €**-ren irabazlea Jb Liautard izan da, "Fuego" argazki ikusgarriari esker, zeinak Bilboko Mendi Zinemaldiaren irudia izateko ohorea izango duen. Sari horrez gain, Liautardek lehen eta hirugarren sariak ere irabazi ditu CVCEPHOTOren edizio honetan.

Lankidetzeta-hitzarmena EITB Mediarekin

EITBk EUSKAL HERRIKO ARGAZKIRIK ONENAREN EITB SARIA babestuko du, Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroako Foru Erkidegoan eta Ipar Euskal Herrian lortutako argazkirik onenari dagokiona, eta CVCEPHOTO lehiaketako epaimahaiak aukeratuko du.

CVCEPHOTOk eta EITB Mediak babesletza-kontratu bat ezarri dute, eta, horren bidez, erakunde babesleak argazki finalistak erakutsiko ditu ETBko Eguraldia/El Tiempo atalean eta www.eitb.eus/eguraldia atarian, urriaren 19a baino lehen, egun horretan egingo baita sari-banaketa.

Aurten, **EITB Sariaren eta 700€-ren irabazlea** Yhabril Moro izan da, bere "White Fang" argazkiagatik. Era berean, CVCEPHOTOren edizio honetako bigarren saria jaso du ere.

Erakusketa Boulevardean eta zereemonia Aquariumean

Saritutako hemeretzi argazkiak formatu handian erakutsiko dira Donostiako Boulevardeko lorategietan. Erakusketaren inagurazioa Urriaren 18 an arratsaldeko 18:30 etan CVCEPHOTOko talde, saritu, laguntzailea/kolaboratzaileak eta Udaletxeko agintariak bertaratzen direlarik. Sari banaketaren ekitaldia Donostiako Aquariumean egingo da, Urriaren 19an, larunbata, 18:30etan. Ekitaldian saridunek parte hartuko dute eta, argazki sarituez eta finalistez gain, pelikula baten proiektzioaz gozatu ahal izango dugu.

Aretoko erakusketa, kalitate handiko inpresioetan, Club Vasco de Camping Elkartearen egoitzan dago (Prim kaleko 35. zenbakian ibaitik sartzen da) azaroaren bukaera arte. Boulevard kaleko erakusketa azaroaren erdialdera arte egongo da ikusgai.

"TOPO argazki-topaketak" tailerra

Sari banaketa ekitaldia baino lehen, goizeko 10:00 etan, Club Vasco de Camping Elkartearen egoitzan, "TOPO Argazki Topaketak" tailerraren edizio berri bat egingo da. Bertan, saritutako argazkilariek euren lanaz hitz egingo dute. Jb Liautard, Yhabril, Patricia Valero, Aitziber Narbaiza, Jordi Rulló, Aritz Gordo eta Marc Marco Ripoll etorriko dira.

Sarrera librea izango da, CVCE-n izena eman ezker. Tailer hau Eusko Trenbide Sareak babesten du, CVCErekin elkarlanean.

ANTOLATZAILEA:



BABESLEAK:



LAGUNTZAILEAK:



CVCEPHOTO 2024ko Sariak

Lehenengo saria: "The Dune", Jb Liautard

Bigarren saria: "White Fang", Yhabril Moro

Hirugarren saria: "Fuego", Jb Liautard

Poster BBK Mendi Film Bilbao Bizkaia 2024 Saria: "Fuego", Jb Liautard

EITB 2024 Saria: "White Fang", Yhabril Moro

Ohorezko aipamena: "Diemtigtal Valley", Andreas Busslinger

Ohorezko aipamena: "Sasso Cubico", Piotrek Deska

Ohorezko aipamena: "Atxolin", Carlos de Cos Azkona

Ohorezko aipamena: "Pistolnik", Piotrek Deska

Ohorezko aipamena: "Reflejos", Patricia Valero Mayo

Ohorezko aipamena: "Moments", Elias Ejderhamn

Ohorezko aipamena: "Escapando de las sombras", Aitziber Narbaiza Martínez

Ohorezko aipamena: "Into the wind", Paolo Miramondi

Ohorezko aipamena: "The Tower", David Martínez Moreno

Ohorezko aipamena: "Boira MTB I", Jordi Rulló Falcó

Ohorezko aipamena: "Inception", Radoslav Sviretsov

Ohorezko aipamena: "Paradisua", Aritz Gordo

Ohorezko aipamena: "Kayaking in meander", Andreas Busslinger

Ohorezko aipamena: "Embryo", Yhabil Moro

Ohorezko aipamena: "Between mountains and rivers", Xin Guan

Ohorezko aipamena: "Vía nocturna", Marc Marco Ripoll

Ohorezko aipamena: "Downhill", Soroush Khazraeializadeh